



## II. ATALA TXILLARDEGIRI ESKAINITAKO LANAK



# 12

## EUSKARAREN TRANSMISIOA FAMILIA BIDEZ INDARTZEKO TAILER PILOTUA BURUNTZALDEAN

**Xabier Elortza, Alex Mungia:** *HABEko teknikariak*  
**Nekane Goikoetxea:** *Andoaingo Udaleko Euskara-teknikaria*  
**Iñaki Pikabea:** *EHUko irakaslea*  
Helbide elektronikoa: [i.pikabea@ehu.es](mailto:i.pikabea@ehu.es)

### 1. SARRERA

Artikulu honen funtsa, zenbait eduki azaltzeaz gain, Txillardegiri eskainitako omenaldi txiki bat ere bada. Ondorengo lerroetan azaltzen diren egitasmo, gertaera eta ondorioak, neurri batetan gizon handi hau dute iturburu. Soziolinguistikaren eremuko ideia, kontzeptu, irizpide... eta abar luzeak, gutako batzuk lehen aldiz Txillardegiri entzun izan dizkiogu. Bere ikasleak izateko ohorea izan dugu eta, hortaz, esan genezake hurrengo lerroen "errudunetako" bat gure maisu handia izandako gizon hau dela. Hortaz, lehenik eta behin, gure esker beroenak Jose Luisi. Ekin diezaio-gun, ondoren, izenburuak aipatzen duen tailer honen berri emateari.

Gipuzkoako Buruntzaldeko udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) abian jarri dute "familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko plana". Egitasmo honek, besteak beste, gurasoek hizkuntza-transmisioari buruz dituzten uste, sinismen eta portaeren arteko koherentzia lortzea du helburuen artean. Argi dago guraso diren gehienek bat egiten dutela euskararen berreskurapen nahiarekin. Gainera, beren seme-alabak eleanitzak izatea nahi dutela jakina da. Baina hori lortzeko ez dituzte askotan portaerak helburuekiko lerratzen.

Andoaingo udaleko Nekane Goikoetxea euskara-teknikariak dioen bezalaxe “Portaeretan aldaketak eragiteko asmoarekin, gure kanpainak alderdi arrazionaletik, kognitibotik bideratu izan ditugu. Sentsibilizazio-lana informazio “berria” ematean oinarritu dugu askotan. Azken urteetan erabili ditugun bitartekoetan, hitzaldi zein ikastaroetan esate baterako, alderdi afektiboari arreta handiagoa jarri diogu.” (Goikoetxea, 2009: 6. or.).

Artikulu honetan Buruntzaldeko Udalek bideratutako egitasmoaren barruan Andoaingo Aita Larramendi ikastolan ([www.andoainikastola.net](http://www.andoainikastola.net)) burutu den tailerraren nondik-norakoa biltzen da. Tailer honetan, adimen emozionalaren lanketa eta familia barruko euskararen erabilera areagotzeko esku-hartzea uztartzen saiatu gara.

Bi izan dira tailer honetan landu diren gaien abiapuntuak:

— Lehendabizikoa, Buruntzaldeko familia bidezko egitasmoak eman duen eramangarrietako bat da: Xabier Elortza eta Alex Mungiak sortu zuten gurasoentzako liburuxka *Etxean zer ikusi, hura ikasi* (Elortza, Mungia, 2007a). Bertan, gonbitea egiten zaie aita-amei guraso izatearen inguruan nahiz etxeko euskara-erabilera handitzearen aukeraz gogoeta egin dezaten. Gainera, hainbat tresna eraginkor eskaini nahi dituzte nork bere bidea aberats dezan, bai pertsona mailan, bai guraso moduan egokiago jarduteko, bai eta euskaldun gisa zer gehiago egin dezakeen hausnartu eta praktikara eramaten laguntzeko.

— Bigarren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik heziketa emozionalaren lanketa helburu duen egitasmoa azaltzen da (Aritzeta et al. 2008). Egitasmo honek isuri ezberdinak ditu, hezkuntza, familia eta lan-eremuak uztartu baititu Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko departamenduak bultzatuta ([www.igipuzkoa.net](http://www.igipuzkoa.net)). Aipatutako liburuan heziketa-arloa jorratu da. Honela Gipuzkoako hainbat ikastetxetan, tartean Andoaingo Aita Larramendi ikastolan, ikasketa emozionala eta soziala sustatzeko egin den bidea jasotzen da.

Beraz, irakurleak proiektuaren testuingurua aurkituko du artikulu honetan eta balorazioaren zertzelada nagusiak.

## 2. TESTUINGURUA

Buruntzaldeko programa pilotuak hainbat ezaugarri ditu ezer baino lehen azpimarratzea merezi dutenak.

Xede-taldeak dira, alde batetik, eskualdean guraso izateko zorian daudenak (haurdun daudenak), eta, bestetik, bi edo hiru urteko seme-alabak dituzten gurasoak. Lehen multzora iristeko eskualdeko osasun-zentroekin lan egin da eta, bigarren, iristeko, berriz, sei herrietako ikastetxeren lankidetzara bilatu da (udalerrri bakoitzeko bat).

---

*“Familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko plana”. Gurasoek hizkuntza-transmisioari buruz dituzten uste, sinismen eta portaeren arteko koherentzia lortzea du helburuen artean.*

*Artikulu honetan Buruntzaldeko Udalek bideratutako egitasmoaren barruan Andoaingo Aita Larramendi ikastolan burutu den tailerraren nondik-norakoa biltzen da.*

---

*Xede-taldeak dira, alde batetik, eskualdean guraso izateko zorian daudenak (haurdun daudenak), eta, bestetik, bi edo hiru urteko seme-alabak dituzten gurasoak.*

*Orobat, lehenetasuna eman nahi izan zaie euskaldunak izan baina erdaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoei.*

Materialak egiten hasterako, euskara-zerbitzuetako teknikariek zenbait ikastetxeetako zuzendaritza-taldekoekin zein tutoreekin sustaturiko lankidetzan bidean eginda zituzten hainbat urrats:

— Euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko programa pilotuaren oinarri teorikoak: haurrak nola ikasten dituzten hizkuntzak (motibazioa, ezagutza eta erabilera), eskolaren garrantzia eta mugak, etxearren garrantzia, hiztunak osatzeko mekanismoa, egiten ari diren lana hobetzeko proposamena (esperientzia pilotuak), plan pilotuaren definizioa (familia-motak, helburuak).

— Galdetegi bat pasatua zitzaion gurasoei: nortzuk bizi diren ikaslearekin etxean, ba al dakiten euskaraz, eta nola hitz egiten duten beren artean.

— Azkenik, hurrengo urratsak eta kronograma: bilerak tutoreekin, aditu baten hitzaldia, programan parte hartzea (ipuin-, kantu- eta jolas-bildumak, aholku-liburuxkak...) eta, amaieran, balorazioa egitea.

Xede-talde horren baitan, era berean, helburu berezituak aurreikusi ziren gurasoon hizkuntza-tipologiaren arabera, uste izan da ezberdina izan zitekeela bakoitzaren esku-hartzea guraso biak euskaldunak izan, bietako bat bakarrik izan edo biak erdaldunak izanda. Orobat, lehenetasuna eman nahi izan zaie euskaldunak izan baina erdaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoei.

Horrekin guztiarekin batera, programaren izaera pilotua azpimarra-tu behar da. Han-hemen egin izan diren tankera bertsuko beste programa batzuetako ekarpenak begien aurrean edukita, urrats eraginkor bat egin nahi izan da hizkuntza-ohiturak hobetzen joateko gida bat eskainiz.

Testuinguru horretan *aholku-liburuxka* bat eta *gida metodologiko* bat prestatzeari ekin zitzaion. Material hauetan bi norabide landu behar ziren:

— batetik, hizkuntza-tipologiaren arabera, gurasoen hizkuntzaren transmisioa eraginkorrago egiteko aholkuak eskaintzea, eta

— bestetik, erdaraz egiteko ohitura zuten guraso euskaldunentzako gida metodologiko bat egitea, familiako eguneroko harremanetan euskara gehiagotan eta hobeto erabiltzen laguntzeko.

Behin materialak prestatuta, gurasoentzako lehen tailerrari ekin zitzaion. Bertan, alderdi emozionalari eman diogu lehenetasuna eta bizipen horretan garraiatu dugu gure hizkuntza-helburua. Honela, alfabetatze emozionalean janzten ari diren gurasoei, hizkuntza-portaerei erreparatzea proposatu diegu.

Begoña Ibarrolak, psikologo eta adimen emozionalean adituak, emozioek gizakion portaeretan berebiziko garrantzia dutela dio; zenbait emozio ongi egoten laguntzen digutela eta beste batzuek elkarbizitza ozto-

patzen eta pertsonen arteko harremanetan arazoak sortzen dituztela (Ibarrola, 2009). Beraz, gure helburua hizkuntza-portaeretan eragitea bada, emozioen alderdia aintzat hartzen saiatu behar dugula uste dugu. Hor-taz, ez al genuke kontuan hartu beharko hizkuntza-normalizazioan gabil-tzanok hizkuntzaren inguruan demagun gurasoei, sortzen zaizkien emo-zioak? Jakin badakigu emozionalki neutralitaterik ez dela existitzen. Oso datu ohargarria da, bizi ditugun emozioak ezkututzen saiatu arren, hitzezko gezurrak esanda ere, gure gorputzak hitz egiten duela. Gure dimentsio kognitiboak ezin du gure dimentsio emozionala lotu. Zeintzuk dira euskararen berreskurapen prozesuarekin lotuta dauden emozioak? Ematen al diegu bide emozio horiei? Gure esku-hartze programetan kudeatzen al dugu gure xede taldearen alderdi emozional hori? Eta gure emozioak?

Pikabeak dio "...hizkuntza-irakaskuntza ez da metodo-arazoa, per-tsona-arazoa baizik..." (Pikabea, 2002: 18). Esaldi hau extrapolatuz esan-go genuke "euskararen erabileran eragitea ez dela metodo-arazoa, per-tsona-arazoa baizik". Pertsona bakoitzak erabaki behar du nola jokatu nahi duen hizkuntza-transmisioarekiko. Aldagai kognitibo eta afektiboekin egin behar dugu lan.

Gurasoak, oro har, ez daude alfabetatze emozionalean trebatuta. Ez dute prestakuntzarik jaso emozioen mundua interpretatzen, kontrolatzen, erregulatzen... jakiteko. Beraz, premia horietan ernatu nahi da euskaraz-ko portaeretan mugimendua. Ez alferrik, *motibazio* hitzak bezala, *emozio* hitzak ere latinezko *movere* aditza du oinarrian (e-movere: kanpo aldera mugitu edo nor bere baitatik ateratzea). Talde-lan honetan, nork bere bizi-penetan oinarritutako ekarpenak egin ditu. Kontsiderazio indibiduala eta konfidentzialtasuna jokaleku hartuta, ikaskuntza-prozesu bat landu da. Talde-lana praktikan oinarritu da, ez baita ahaztu behar, entzundakoa ahaztu egiten dela, ikusitakoa gogoratu, eta egindakoa ikasi.

Esku-hartze modu honek hiru ezaugarri dituela esanez laburbilduko dugu atal hau: *diziplinartekotasuna*, *zeharkakotasuna* eta *kooperazioa*.

*Diziplinartekotasuna* diogu, ez dugulako hizkuntza-helburua isolatu-rik proposatzen, beste osagai batzuekin integraturik heltzen diogu hiz-kuntzaren esku-hartzeari, kasu honetan, heziketa emozionalarekin. Hori-xe dugu "autobidea".

*Zeharkakotasunez* lantzen dugu helburua, ikastetxea baita gurasoen-gana iristeko eragilea. Baina ez hori bakarrik, Buruntzaldeko egitasmoa-ren baitan, eragile ezberdinek osatutako lan-taldearen babesean antolatuta delako. Sinergia horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia aipatu behar dugu, berak sustatu baitu adimen emozionalaren lanketa lurralde honetan.

*Kooperazioa* da beste giltzarrietako bat. Hizkuntza esku-hartzea gon-bite bezala bideratu da. Guraso bakoitzari aukera eman zaio nor bere barrura begiratzeko eta zenbait gauza aldatzen ikasteko. Gutako bakoit-zak heldu behar dio gaiari. Baina, jakina, norbera, zergatik aldatu behar

---

**Behin materialak prestatuta, gurasoentzako lehen tailerrari ekin zitaion. Alfabetatze emozionalean jantzen ari diren gurasoei, hizkuntza-portaerei erreparatzea proposatu diegu.**

**Zeintzuk dira euskararen berreskurapen prozesuarekin lotuta dauden emozioak? Ematen al diegu bide emozio horiei? Gure esku-hartze programetan kudeatzen al dugu gure xede taldearen alderdi emozional hori? Eta gure emozioak?**

***Dilts-en ereduak aukera ematen du hausnartzeko aldaketez, ikaskuntzaz eta komunikazioaz, eta lagungarri gerta daiteke jakiteko non eragin behar den, lortu nahi den aldaketa erdiesteko.***

duen ulertzen badu aldatuko da, zentzua bilatzen badio, ez guk edo irakasle batek esaten diolako... Ikuspegi honetatik, sakonagoa eta anbizio-tsuagoa da esku-hartze modua.

Hizkuntza-normalizaziotik bideratzen ditugun plangintzetan, maila zehatza eta orokorra uztartu behar izaten ditugu. Tailer hau, zalantzarik gabe, lehenengoan kokatzen da, pertsona gutxiengan eragiten du baina, tantaka-tantaka, kultura aldaketa bat bidera liteke horrela. Ikuspegi kualitatibo bidea zabaldu beharko litzaieke, gure iritziz.

### **3. MATERIALEN OINARRIAK ETA EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-kontuak ez dira soilik filologia- edo gramatika-arlokoak. Burua eta bihotza, sentitzeko gaitasuna eta pentsatzeko ahalmena; horra hor bizitzan aurrera egiteko behar ditugun bi alderdiak. Beraz, horiek horrela, oso aintzat hartu ditugu emozioak lan hau sortzeko.

Bestalde, oso argi zegoen erronkaren nolakoa, besteak beste, etxe barruko eremu pribatuan ere eragiteko materiala sortzea eskatu zelako (bikote-hizkuntza, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza); ezinbestekoa zela errespetu handiz egitea.

Erabaki zen sortze-lana HABEko teknikariek egitea, baina hasieratik Soziolinguistikako Klusterrarekin (SK) elkarlan-prozesua indartzea, eta bigarren aldi batean elkarlana Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) eta Buruntzaldeko udaletako euskara-teknikariek osatzea.

Hasiera hartan, euskararen erabilera bultzatzeko **egoerak** pentsatu, eta menu moduko bat adostu zen. Adibidez:

- etxean, eskolako atarian, parkean...
- etxeko sukaldean, egongelan, logelan...
- telefonoa hartzean lehen hitza euskaraz egitea oso garrantzitsua dela erakusteko...
- edo euskarazko prentsa kontsumitzearen premia azpimarratzeko...
- edo euskarazko produktuak kontsumitzeko beharra ikustarazteko...
- edo halakorekin euskaraz egitearen komenientzia begien aurrean jartzeko...
- edo ... ..

Hasieran, lan asko sortzeko unean izaten den modura, **galderak** ziren nagusi eta, ezinbestean, gehiago zehaztu behar izan zen jasotako eginbeharra:

- Nola gerturatu gurasoak eta ez uxatu?
- Nola neurtuko da arrakasta?

- Zertan eragin behar da, arrakasta lortzeko?
- Nola ailegatu ahalik eta gurasorik gehienarengana?

Gure eginkizunean laguntzeko, Programazio Neurolinguistikoaren arloko aditua den Robert Dilts-en (Dilts, 2003) pentsamenduaren maila logikoari eutsi genion. **Dilts-en ereduak** aukera ematen du hausnartzeko aldaketek, ikaskuntzaz eta komunikazioaz, eta lagungarri gerta daiteke jakiteko non eragin behar den, lortu nahi den aldaketa erdiesteko.

Eredu horren arabera, gizakion pentsamendua hainbat maila logikotan edo neurologikotan antolatzen da.



1. Lehen maila *espiritualtasunari* dagokio. Horixe da mailarik sakonena, eta hortxe aztertzen dira galdera metafisiko nagusiak. Zergatik gaude hemen? Zertarako? Maila honetan izandako aldaketek eragin itzela dute gainerako mailetan.
2. Bigarren maila *nortasunari* dagokio. Nork bere buruaz, balore nagusiez eta bizitzako eginkizunari buruz duen oinarritzko ideia da.
3. Hirugarren maila *usteei* dagokie. Egia direla uste izan eta gure eguneroko bizitza garatzeko erabiltzen dugun ideien multzoa da.
4. Laugarren maila *gaitasunei* dagokie. Bizitzan erabiltzen ditugun portaera, trebetasun orokor eta estrategiei dagozkie.
5. Bosgarren maila *jokabideei* dagokie. Eguneroko egiten ditugun (ez ditugun) ekintza zehatzak dira.
6. Seigarren maila, aldiz, *inguruneari* dagokio. Maila honetan daude espazioa, denbora eta gure inguruan dauden gainerako izakiak.

Dilts-en ereduaren arabera, ez da nahikoa lortu nahi diren jokabidealdaketak definitzea. Goragoko maila neurologikotan ere eragin beharra dago: gaitasunetan eta, batez ere, usteetan. Usteek gaitasunak hautatzen dituzte, eta gaitasunek jokabideak, eta horiek, era berean, ingurunea erakitzen dute.

Gure usteek eragin izugarria dute gure jokabideetan; motibatu egiten gaituzte eta moldatu egiten dituzte gure jokabideak. Oso nekeza da

---

*Gaur egun euskararen alde egiten den diskurtsoak iruditzen zaigu ez duela prestigio handiegirik euskaldun askorengan. Emozioen ikuspegitik, euskaldun asko ez dira eroso sentitzen. Izan ere, euskalduna sentitu arren, jokabide negatiboaren pertzepzioa nagusitzen baita askotan.*

**Esperientzia pilotuan 2-3 urteko umeen gurasoak harrapatu nahi izan ditugu eskolaren bitartez, pentsatzen dugulako guraso horiek oso sentiberak direla une horretan eta prest egongo direla hainbat gauzatarako.**

**Etxean zer ikusi, hura ikasi gurasoentzako liburuxkaren helburua da gogoeta sustatzea aita-ama izatearen nolakoaz nahiz etxeko euskara-erabilera handitzearen aukeraz.**

ezer berria ikastea atsegina izango dela eta gure mesederako izango dela uste izan gabe. Bestalde, usteak dira gure bizitzaren gidari; egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen digute.

Usteak, hala ere, aldatu eta garatu egiten dira. Geure buruari buruzko iritzi ezberdina dugu, ezkondu egiten gara, banandu, lagunak eta adiskideak aldatzen ditugu eta ezberdin jokutzen dugu, gure usteak aldatu egiten direlako.

Hori guztia kontzeptualki koherentea iruditzen bazitzaigun ere, ezin genuen ahaztu gure eginkizuna gurasoentzako **gida metodologiko** bat sortzea zela eta, gehienez ere, egoera jakin batzuetarako (ingurunea) ekintza batzuk (jokabideak) proposatzera eta horiek errazago egiteko teknika batzuk (gaitasuna) eskaintzera iritsi gintezkeela. Hala ere, gero eta argiago genuen usteetan eragiten ahalegindu behar genuela, esan bezala, motibazioaren eragilerik handiena delako.

Eta une horretan lotu genuen gure gogoeta beste mundu kontzeptual batekin: Daniel Goleman-en “emoziozko adimena” kontzeptuaren inguruan azken hamarkada luzean garatu denarekin (Goleman, 1997).

Goleman-en esanetan arrakasta lortzea hainbat aldagairen baitan dago. Hainbat ikerketa aipatuz, arrakasta bi aldagai multzoren baitan jartzen du: abilezia teknikoak eta abilezia emozionalak, baina oso proportzio ezberdinean: %20 abilezia teknikoen mende eta %80 abilezia emozionalen mende.

Gaur egun euskararen alde egiten den diskurtsoak iruditzen zaigu ez duela prestigio handiegirik euskaldun askorengan. Emozioen ikuspegitik, euskaldun asko ez dira eroso sentitzen. Izan ere, euskalduna sentitu arren, jokabide negatiboaren pertzepzioa nagusitzen baita askotan. Gogoan hartu beharreko aldagaia iruditzen zitzaigun.

Hortaz, argi genuen gure helburuetarako ona izango zela emozioen bidea jorratzea, lehen adierazi bezala, gizakiok arrakastara eramaten gaituzten abilezien %80 emozionalak direlako. Ikuspegi horren zilegitasunak pisu handiagoa hartu zuen, bestalde, une horretan bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Gipuzkoako ikastetxe askotako zuzendaritza-taldeetako kideak gai hori lantzen ari zirelako, eskoletan sakoneko aldaketak eragiteko tresnarik hoberena zelako ustean.

Esperientzia pilotuan 2-3 urteko umeen gurasoak harrapatu nahi izan ditugu eskolaren bitartez, pentsatzen dugulako guraso horiek oso sentiberak direla une horretan eta prest egongo direla hainbat gauzatarako. Gainera, koherente izateko, ezin dugu ahaztu, hizkuntzarekin lotutako kezkekin batera, garai horretan gurasoek kezka berezia dutela seme-alaba hobeto nola hezi asmatzearekin. Ildo horretatik, gidak interesgune horri ere erantzun behar ziola iruditzen zitzaigun, eta hizkuntza-kontuak bigarren maila batean uztea erabaki genuen —itxuraz, behintzat.

Gogoeta horiek guztiak oinarri guraso euskaldunentzako *Etxean zer ikusi, hura ikasi* (Elortza, Mungia, 2007a) gida osatzeari ekin zitzaion.

Liburuxkaren bitartez ez da inor behartu nahi ezertara. Gonbita da. Proposamen batzuk egiten ditugu, gurasoek praktikara eraman ditzaten, haiek hala erabakitzen badute. Ildo horretatik, gurasoentzako liburuxkaren helburua da gogoeta sustatzea aita-ama izatearen nolakoaz nahiz etxeko euskara-erabilera handitzearen aukeraz.

Izenburuak berak adierazi nahi izan du, lantzen duen gaia ez dela bakarrik hizkuntza edota euskararen gaia, zabalagoa dela, eta zerikusia duela gurasoek seme-alaben eredu izatearen alderdiarekin. Liburuxka gonbite modura aurkezten zaie erabiltzaileei, gogoeta sustatzeko tresna modura, bai aita-ama izatearen nolakoaz, bai euskararen erabilera handitzearen aukeraz, eta baita tresna-bilduma modura, nork bere bidea abeerasteko, bai pertsona mailan, bai guraso moduan.

Bost saio proposatzen dira lanerako. Saiootan, batetik, emozioekin lotutako gairen bat jorratzen da (aurreneko lau saioetan), gogoeta bultzatzen da, eta proposamen eta tresna jakin batzuk ere eskaintzen dira eta, bestetik, euskararen gaia lantzen da (saio guztietan eta guztiz bosgarrenean).

Adibidez: geure bizitzan helburuak jartzeak duen garrantzia ikusita, helburuak nola jarri azaltzen da, eta gurasoak erabakiko du zer lortzeko erabiliko duen metodologia hori.

Saio bakoitzak egitura bertsua du:

— Sarrera. Bi azpiatal ditu:

- Testu labur bat, hainbat gai interesgarri buruzko informazioa emateko: emozioen garrantziaz, geure bizitzan helburuak ezartzeaz, umorearen eta barre egitearen garrantziaz, ez haserretzeaz.
- Horrekin batera 2-3 urteko haurra duen guraso batek edozein unetan bizi lezakeen egoera bat eskaintzen zaie: goizeko haserrea etxeko irteeran, eskolatik jasotako oharra, hitzalditxo bat eman beharra, ipuina kontatzeko ordua, bikotekidearen urtebetetzea.

— Zer-nola, edo hobetzeko proposamena lantzeko atala. Atalak hiru azpiatal ditu:

- Nor bere golkorako galderak: nork bere egoeraren gainean gogoeta egiten laguntzeko
- Hobetzeko bideak: norberak eman nahi dituen urratsak lantzeko tartea.
- Proposamena lantzeko tresnak: eginkizuna burutzen lagunduko duten teknikak, jarraibideak...

— Agenda, egindako saiakuntzei buruzko ohar laburrak jasotzen joateko: zertan saiatu den, zer lortu duen, sentipenak eta proposamenak.

Eta **aholku-liburuxka** den *Euskara ere eman* (Elortza, Mungia, 2007b) berriz, hizkuntza-jokabideei buruzko hausnarketa patxadaz egitera gonbidatzen du, hizkuntza-egoera konplexuan sortzen diren zalantzak eta

---

*Bost saio proposatzen  
dira lanerako. Saiootan,  
batetik, emozioekin  
lotutako gairen bat  
jorratzen da, gogoeta  
bultzatzen da, eta  
proposamen eta tresna  
jakin batzuk ere  
eskaintzen dira eta,  
bestetik, euskararen gaia  
lantzen da.*



***Heziketa emozionala  
hezkuntzaren praktikan  
txertatzeko estrategia  
ezberdinak erabili dira,  
zeharkakotasuna,  
curriculum-txertakuntza  
eta tutoretza daude  
horien artean.***

kezkak argitzeko lagungarri izan nahi duten zenbait aholku emanaz. Guraso euskaldunei zuzendutako aholkuak eskaintzen dira (euskaraz), guraso erdaldunei begirakoak (gaztelaniaz) eta bikote mistoei buruzkoak (euskaraz eta gaztelaniaz).

Material horren bidez ez da aparteko elkarreraginik bilatzen. Helburua du gurasoen zalantza batzuk argitzea, irizpide batzuk eskaintzea seme-alabak ahalik eta euskaldunenak izan daitezen; beti ere, kontuan hartuz gurasoen hizkuntza-tipologia.

#### **4. LEHEN TAILERRAREN EZAUGARRIAK**

Hizkuntza-transmisioa familia bidez indartzeko tailerraren lehen saiakera dagoeneko egin da. Horretarako Andoaingo Aita Larramendi Ikastola aukeratu zen arrazoi ezberdinengatik. Batetik, ikastola honek Ikastolen Elkartearen bidez, Hizkuntza Proiektua garatzen ari da. Bestetik, ikastola hau bere bidea egiten ari da eskola-komunitatea eraikitzeke orduan. Guraso Eskolaren bidetik batez ere, baina bestelako bitartekoak erabiliz (tutore-guraso arteko harremana sendotuz, ekintza ezberdinen dinamizazioa, gurasoen euskara-batzordea...) gurasook heziketa-kultura berean txertatzeko konpromisoari heldu dio ikastetxe kooperatibo honek. Bide luzea geratzen da oraindik baina urrats sendoak eman dira familiak eta eskolak talde bakarra osatzeko helburuan.

Guraso Eskolaren bitartez eskolak hartzen du gurasoak hezteko ardurua nolabait. Gai ezberdinen inguruko eskaintza egin ohi du ikastolak ikasturtean zehar (TBren erabilera, elikadura-ohiturak, mugak nola jarri, ipuin kontaketa e.a.). Baina, dudarik gabe, gai arrakastatsuena, Adimen Emozionalaren lanketa izan da.

Aurrez esan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2005ean abiarazi zuen heziketa emozionala lantzeko proiektua. Lehen prestakuntza-programa Gipuzkoako irakasleei zuzendua izan zen. Gerora, ikasle eta gurasoengana zabaldu zen egitasmoa. Heziketa emozionala hezkuntzaren praktikan txertatzeko estrategia ezberdinak erabili dira, zeharkakotasuna, curriculum-txertakuntza eta tutoretza daude horien artean. Aita Larramendi ikastolak hasieratik hartu du parte egitasmo honetan (ez da horretan herriko ikastetxe bakarra) eta bere bidea egiten ari da hiru estrategia moduetan.

Ikastaroaren antolaketan bereziki eskertu nahi ditugu bertako orientatzaile eta Guraso Eskolaren arduraduna den Gloria Castaños eta Josune Irazu hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria, egindako lan bikain guztiagatik. Tailerreko irakasle-lanetan EHUko Iñaki Pikabea psikologoa aritu zen.

"Emozioen eta euskararen transmisioa familietan" izenburupean egin zen 4,5 orduko tailerraren eskaintza. Guraso Eskolaren ohiko eskaintzaren barranean jaso zuten parte hartzeko gonbitea gurasook. Guztira, 21 gurasok

hartu zuten parte: 20 ama eta aita batek. Hiru saiotan banatuta, arratsaldeko 4:45etik 6:15era bitarteko ordutegian egin zen ikastolaren egoitzan bertan. Zenbait oinarri hartu ziren oso aintzat, besteak beste, honako hauek:

- Emozioez mintzatzeko, norberaren esperientziak azaltzeko... jarrera
- Diskrezioa taldekideen artean
- Errespetua
- Giro lasaia
- Guraso guztiek lekua izatea

Tailerreko denboraren %30a teoriari eskaini zitzaion. Landu ziren edukie dagokionez, batetik, emozioen inguruko lanketaren oinarri zientifikoak azaldu ziren: zer diren emozioak, bakoitzak zertarako balio duen, emozio mota ezberdinak, emozioak nola adierazten diren, gorpuztean eta gure portaeran duten eragina, adimen emozionalari buruzko ereduak, adimen mota ezberdinak, adimen emozionalaren osagaiak, e.a. Bestetik, hizkuntza-ekologiaren kontzeptua eta gurasoen liburuxkan jasotzen diren hainbat eduki landu ziren. Hirugarrenik, denboraren %70ean zehar, azalpenak, ariketak eta esperimintatzeko teknikak uzartu ziren tailerrean zehar.

Saio guztietan teoria eta praktikaren arteko oreka egokia bilatzen saiatu zen. Antolatzaileek argi zuten hiru saiotan sakontasun handirik ezin zela lortu eta helburua, edukietan sakontzea baino bizipenei garrantzia ematea zela. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen zen saioek erakarri, atsegin eta hausnarketarako egoki bilakatu behar zutelara. Gerora, nork bere bizitzan alfabetatze emozionala lantzen aritzeko saio motibagarrak antolatu nahi ziren.

Saioetan zehar ariketa txikiak eta laburrak egin ziren, zenbait edukiz mintzatzeko aitzakia modura. Ariketa hauen artean "etxekolanak" aipatu nahi genituzke. Saio batetik bestera, eduki teorikoei buruz erreparatzeko dokumentazio laburra emateaz gain, gurasook ipuin bana irakurri beharra zieten seme-alabei aste beteko epean. Ipuinok ez ziren nolana hikoak, Ibarrola psikologoak adimen emozionala lantzeko sortu eta bideratutakoak baizik. Ipuin hauek baliatuz eta bakoitzaren ondorengo galderak erabiliz, seme-alabekin elkarrizketak eragin nahi ziren zenbait emoziori buruz (haserrea, tristura...). Hurrengo saioetan, tarte garrantzitsua eskaintzen zitzaion familia bakoitzean ipuin-kontaktaren nondik-norakoak azaltzeari. Familia bakoitzeko gertaerak ezberdinak izanik, tailerra oso aberats bihurtu zen emozioen lanketen inguruan sortutako gorabeherak azaltzeko garaian (ume bakoitzaren erreakzioak, gurasoen bizipenak elkarrizketa "berri" horietan, etab.). Taldekideen arteko interakzioak garrantzi handia hartu zuen bi zentzutan: emozioez mintzatzean, eta, mintzatzeko unean, emozioak bizitzean.

---

***Tailerrean jasotzaileek gauza interesgarriak ikasi zituzten baina bi gaien uztarketa horretan zerbaiten faltan geratu omen ziren hizkuntza-transmisioari dagokionez.***

**Aurrera begira, tailerreko partaideen ezagutza adimen emozionalean parekoa izatea eta partaideen formazioa aurrez jakitea baliagarria izan liteke tailerra hobeto egokitzeke.**

**Heziketa emozionalaren sistematizazioaren bidetik, familia bidezko hizkuntza-transmisioaren sistematizazioa ere bidera litekeela uste dugu.**

Azkenik, hiru saiootan azaldu, sortu eta bizitutakoak ordenatzeko eta kokatzeko ahalegina egin zen, alfabetatze emozionalaz taldekide bakoitzak zenbait ideia, gutxi izanda ere, argi izan zitzaizkien amaitutakoan.

## **5. BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK**

Tailerraren alderdi operatiboa ongi joan zen, bai antolaketa, bai koordinazioa. Guraso taldea bera ere oso ona izan zen, elkarrekin esperientziak konpartitzeko aukera eta jarrera erakutsi zuten. Bestetik, irakaslearen lana ere egokia izan zen. Taldea bikain gidatu zuen. Sorkuntza ikusi zen prozesuan eta taldea gidatzeko abilezia.

Hala ere, tailerra motz geratu zen. Azkenean *Gurasoentzako Liburuxka* bere osotasunean lantzeko denborarik ez zen gelditu eta horretan geratu zen hankamotz tailerra. Tailerrean jasotzaileek gauza interesgarriak ikasi zituzten baina bi gaien uztarketa horretan zerbaiten faltan geratu omen ziren hizkuntza-transmisioari dagokionez. Gurasoek beren balorazioetan bi gaien arteko uztarketan sakontzeko eskatu zuten. Beharbada, kasu errealean gaineko tutorizazio-prozesu moduan bideratu beharko litzateke, ez soilik ikastaro gisa, jarraipen-lan bezala baizik.

Aurrera begira, tailerreko partaideen ezagutza adimen emozionalean parekoa izatea eta partaideen formazioa aurrez jakitea baliagarria izan liteke tailerra hobeto egokitzeke. Bestetik, bi diziplinen uztarketa bi bidetik ikusten dugu: maila *orokorrean*, euskararen familia bidezko transmisioak sortzen dituen emozioen inguruko ikerketa bideratuz, batetik, eta maila *zehatzagoan*, ikastetxearen hizkuntza proiektua eta heziketa emozionalaren garapen-proiektua batera ekarriz, bestetik.

Heziketa emozionalaren sistematizazioaren bidetik, familia bidezko hizkuntza-transmisioaren sistematizazioa ere bidera litekeela uste dugu. Ziurrenik, sendotu egin beharko da esku-hartzea, tailer honen iraupena anekdotikoa da oso ikastetxearen eguneroko jardunean. Baina bide bat erakusten du. Eragile ezberdinen arteko lankidetzak areagotzeko balio lezake, gurasoengana beste sinesgarritasun batekin iristeko, hizkuntza-transmisioari zentzua bilatzen lagunduz; hezkuntza-komunitatea indartzen joateko eta seme-alaben heziketan, baita hizkuntza-heziketan ere, eraginkorrak izateko. Dimensio emozionalaren lanketak elkarlanerako aukera berriak eskaintzen dizkigu baina prest egon behar dugu, era berean, besteon emozioak gure lanean integratzeko. Hortxe erronka.■

## **6. BIBLIOGRAFIA**

- Aritzeta, A.; Pizarro, M.; Sora, G (2008): *Emozioak eta heziketa*. Donostia: Erein.  
Campos, J.J., Barret, K.C., Lamb, M.E., Goldsmith, H.H. eta Stenberg, C.

- (1983) "Socioemotional development". P.H. Mussen (Serie Ed.) eta M.M. Haith eta J.J. Campos-en (argit). *Handbook of child psychology: 2. alea. Infancy and development psychobiology* (4. argit. 783-915 orr). New York: Wiley.
- Dilts, R. (2003): *El poder de la palabra*. Bartzelona: Urano.
- Elortza, X.; Mungia, A. (2006): "Transmisioa indartzeko programa pilotua Buruntzaldean. Materialen oinarria eta ezaugarriak". *Hizkunea*. <http://www.euskara.euskadi.net/>
- Elortza, X.; Mungia, A. (2007a): *Etxean zer ikusi, hura ikasi. Gurasoentzako liburuxka*. Buruntzaldeko udalak. HPS. Soziolinguistikako Klusterra. <http://www.buruntzaldea.org>.
- Elortza, X.; Mungia, A. (2007b): *Euskara ere eman. Zeuk duzu giltza. Pueden ser bilingües. Tú tienes la clave. Aholku-liburuxka*. Buruntzaldeko udalak. HPS. Soziolinguistikako Klusterra. <http://www.buruntzaldea.org>.
- Gardner, H. (1983): *Frames of mind: The theory of multiple intelligences*. New York, Basic Books.
- Goikoetxea, N. (2009): "Adimen emozionalaren lanketaren bidez familia barruko euskararen erabilera eragiteko saiakera" Lasarte-Oriako Udaltopiko topaketarako komunikazio.
- Goleman, D. (1997): *Inteligencia emocional*. Bartzelona, Kayros.
- Guridi, J. R. (2005): "Emoziozko adimena hezkuntza sisteman: Gipuzkoako esperientzia". In *Ezagutzaren Clusterra: Nola sortu ikaskuntza eta ekintzailetasun gaitasunak*. Bilbo: PMP, 2005, 29-34.
- Ibarrola, B. (2009): "Begoña Ibarrolari elkarrizketa". *Hik Hasi*, 135. alea: 18-23.orr.
- Mayer, J.D., Salovey, P. eta Caruso, D. (2000): "Models of emotional intelligence". R.J. Sternberg-en (Argit.) *Handbook of human intelligence* (2. argit.), 396-420.orr. New York, Cambridge.
- O'Connor, J.; Seymour, J. (1995): *Introducción a la PNL*. Barcelona: Urano.
- Pikabea, I. (2002): *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan, eta erabilera-ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat*. Bilbo, EHU-UPV, Argitalpen Zerbitzua
- Serrat, A. (2005): *PNL para docentes. Mejora tu conocimiento y tus relaciones*. Barcelona: Grao, 2005.

---

**Dimentsio emozionalaren lanketak elkarlanerako aukera berriak eskaintzen dizkigu baina prest egon behar dugu, era berean, bestean emozioak gure lanean integratzeko. Hortxe erronka.**